

Utopiaren faseak (II)

LEHENENGO FASEAZ: KONTZIENTZIA
MISTIFIKATUA

Lehenengo utopia (indibiduala) kontzientzia soziala baino lehenago bizten da. Situazio batek norbanakoren baten sormenari eraginik. Bururen batetarik sortzen da, hutsetik bezala. Oraindik apenas bait baduka zein praktiki erreferitu (ukatzatzen du. Esan daiteke, ba, lehenengo utopia hau dela "un ideal nacido de la pura esfera del espíritu y no de la experiencia histórica actual" (Kolakowski).

Ezin harrituko gara, ba, lehenengo utopiaren tankera nahiko bastoa eta primitiboa bada. Errealitate gaizki samar isladatzen bada. Hala modukoa zea, sozialista utopikoan utopia sozialista, adibidez: "Sozial sistima berriok utopiaren erreintuk ibiltzeraz kondena turik jaiotzen ziren, eta zenbat eta xehagarrak izan, hainbat errazago erortzen ziren fantasia hutsak izatera" (F. Engels). Baina utopia hura langileriaren kontzientzia-barnetera ala, Marx bat posible gertatzen zen: utopia birrindu du ahaztu gabe, egoera soziala positiboki azterkatzen zekiena, utopiar nola joan jakiteko (historiak utopiar nola eraman gintzakeen, jakiteko). Eta Marx gazteak ere askoz utopia gehiago egiten zuen, geroago Das Kapital-eko azterkari astunak baino. Eta, ez dakit, baina ez mintzateke deus harrituko, Breshniev en utopiak idadnik Das Kapital-ekoak baino apalagoak lallira.

Arana Goirik egin zuen utopia ere lehenengo utopia bat zen. Nahiko primitiboa hau ere, hain eharrez. Gainera, osagarri kontserbakor eta restaurazale askoduna, zoritzarekz. Baina haren ere, problema batzen erdian kausiturik, etorkizun ideal bat proiektatu zuen. Ikusten zuenaren arabera (industrialariekin kanjotarrak etortzea eta Euskal Herriaren deseuskaltzea) proiektio arrazistak egin zituen. Deseuskaltzea arraza-nahastearen ondorioztat hartu zuen, nonbait. Aurrean zedukan problema besterik ez zuen kontraespilatzen utopia honekin, nolabait ere: agian problemaren terminoak gaizki baloratzeak edo, bere utopia nahiko petral formularazten hazien ere. Dena den, ahal zuen moduan, bere proiektioa egin zuen. Beste guzkiek ere, bakoitzak ahal zuen moduan egin izan zituzten: oroit sozialista utopioez. Marxek berak ere (utopiaren lehen fasekorik ez izan arren), industriarik nahitaez zentralizazioa zekarrela ikusiaz, etorkizun komunistarako proiektio franko zentralis-

tak egiten zituen noizpait. Halaber, Aranaren pentsamantuan elementu burges-koizkor asko egongo da, baina Proudhonenan ere bai. Areago, egia da etorkizunaren beraren azalpenetan, Sabinoren etorkizunak iragandako "Bizkaia" restaurazio antzekoa dirudiela. Baina hori, edozein utopiaren legitimazio-atallak eskatzen duena da, batik-bat: utopiak, bere burua legitimatzeko, historiarekin argudiatu behar izaten du. Marxek ere berdin egiten du, eta haren historiaren interpretaziari ondo ikusten zaio, nabar-nabarmenki utopia legitimatu nahi duela. "Marxista" asko oraindik ez da konturatu, nonbait, interes horrekin apaindu dela historia: haseran gizarte berdin, bakesu, morrontzarik gabeko zoragarria (gerorako itxaroten dena bezalakoxea), eta ego, makineria batek baino zehastasun gehiagorekin iraultza iraultza eta klaserik klase gorantz doan historia. Zuzen-zuzen sozialismora gozela demostrotzeko modu garbiam adierazten da historia dena. Ez dira nonbait konturatu. Ta oraindik zientzia matematiko bat bezalaxe errepikatzen digute, konturatu gabe, interpretazio hori utopia batek bere legitimaziorako egina dela (eta hein hortan bidezkoa izan daitekeela).


Guzi honekin ez ditut, noski, Abandotarra eta Treveristarra parekatu nahi! Teoriko eta ideologo bezala, ez daude inolaz ere maila berdinean. Baina Arana, zentzu hortan, izugarriko teorikotzat dadukanik ere, ez dut inor ezagutu; hura adoratzen zuelako, haren edozer gauza miresten zuen bat ez-pada. Uste dudanez, behintzat, interesatzen zaigun Arana, utopia baten biztaila besterik ez da. Ez haren formulazio teorikoa. Bere eskasia, ustelkeria, zinkkeria eta narraskeria guzikien ere, utopia bat eta burruka bat biztu zituen. Hobeto esateko, hortan ere Arana, beste edozein bezalaxe, historiaren tresna bat izan zen. Proletargoaren problema Marx bezala, edo utopistak bezala, herri baten kinka larriak Arana soriarazi zuen. "Las utopias que intentan dar una nueva estructura a la historia son un producto de esa misma historia".

Honek ez du hezur eta haragizko Aranaren apologiari izan nahi. Baina bai de fakto hezur eta haragizko harixe, ez beste inori, zor diogun "utopia aranistaren" defentsa bat. Izan ere, azkeneko bolan behin eta berriz sortu diren eztabaiden batzuek, derrigor bere lehen fasearekin identifikatu nahi dute "aranismoa". Ez dute utopia hau prozesuan ikusi nahi. Beren lehenengo fasean, ordea, utopia denak dira nahiko ziztrinak. Utopiaren berezko legea da, hain


zuzen, eboluzionatu behar izatea ala hiltzea. Bi modutakoak dira utopia hau lehenengo fase hartantxe geldiarazten enpeinaturik dabiltzanak: 1) aranista kontserbakoiak, utopia hau mugiezin bihurtu nahirik, Aranaren adoratzale perpetuoak, eta 2) ezkeriar bitxi batzuk: utopia "aranista" bera zeharo ukatzen, "aranismoak" oraindik lehen utopiaren eskasia guziak edukitzea gustatuko litzaizkiekeenak. Funtsean aranismoa biontzat gauza bera da: historiari eta prozesorik gabea. Batzuek garbi (?) kontserbatu nahi luketelako: besteak, pikutara bidali nahi luketelako. Logikoki, ez batzuek eta ez besteak lagundu nahi diote prozesu hortan. Batzuek aranismoa beti bere hortan egotea, eta besteak aranismoa batere ez egotea, nahi bait lukete.

Baina hezur eta haragizko Aranaren beraren utopiaz ere, ausaz, esan liteke zerbait. Uste dut, Engelsen hitzok lehen utopia guzietaz esan daitezkeela: "Ut dezagun literatur trapubiltzaileek, gaur barre eragiten daukuten fantasia hauean, beren arrazonamendu egiaziaren nagusitasuna erakutsi diezaguten, "lerdakeria pilo" horren sakontasunean. Guk, ordea, fantasiazko azal horren azpitik, leku guztietatik sortzen diren ideien xerto jenialak eta ideia jenialak miresten ditugu, filisteoek, aldiz, ezin ikus ditzaketenak" (Kintanaren itzulpena). (Jarraitzeko).

JOXE AZURMENDI



YOGUR
GURELEJA
GOGOZKOENA



yany

SUKALDEKO MUEBLEAK
EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S. L.

Urrutizkiña: 891754

ZALDIBIA (Guip.)